

Funtzezko baliabideak

Baliabide fisikoak:

Enpresa baten baliabide fisikoak dira bere eguneko jarduerak burutzeko eta mantentzeko behar dituen ondare fisikoak, hala nola; eraikinak, makineria...

Enpresa baliabide fisikoak negozio-motaren arabera aldatzen dira. Gure enpresan erabilitako errekurtsio-fisikoak honako hauek dira:

1. Eraikinak eta instalazioak: Bulego eraikinak eta zenbait partzela bidaiak antolatzeko.
2. Garraiobideak: Gure bezeroak leku batetik bestera garraiatzeko hainbat auto ditugu.
3. Makineria: Journey Way-n hainbat ordenagailu, telefono eta inprimagailu ditugu gure bezeroekin komunikatzeko zailtasunik egon ez dadin.
4. Larrialdietarako hornikuntza beste batzuen artean suteen kontrako sistemak.
5. Aseguruak: Errekurtsio fisikoak babesteko beharrezko aseguru guztiak (suteen kontrako asegurua, hausturen asegurua...) ditugu.
6. Segurtasun-hornikuntza: Monitoretza-sistemak, kamerak, zainketa-sistemak, sarbide kontrolak eta alarmak.

Baliabide intelektualak:

Baliabidemota hau ez da ez fisikoa ezta ukiezinak ere. Gure enpresan langileen ezagueraren datuak eta barne antolaketa oso garrantzitsuak dira. Enplegatu bat zoriontsua bada, bezeroa ere zoriontsua izango da eta horrek enpresarako abantaila ugari ekar ditzake. Journey-Way-k oso ondo ordaintzen die esfortzua eta talentua gure langileei.

Giza baliabideak:

Giza baliabideak funtsezkoak dira edozein enpresaren trebezia zuzentzeko. Giza baliabideen kudeaketa zaila izan ohi da bere heterogenotasunagatik. Giza baliabideak oso garrantzitsuak dira eta ezaguerak eta pertsonen trebetasunak antolaketaren eskura jartzeen dira, hala ere, ez dira agertzen balantze orokorrean.

Gure enpresan giza baliabideak osatzen dituzten funtsezko elementuak honako hauek dira

Ezaguera: Langile bakoitzak behar bezala prestatuta dago egiten duen lana modu egoki batean egiteko: Lanarekin erlazionatutako ikasketa edota formakuntza.

Komunikazioa: ezinbestekoa da enpresaren eskaintza eta antolaketaren departamentuen funtzionamendua hobezina lortzeko denbora berean jakinarazteko. Komunikazio ona funtsezkoa da bai kanpoan bai barnean.

Motibazioa: Funtsezkoa da enpresa bere helburuak lortu ahal izateko. Motibazioa da hasiera ematen duen eta enpresa baten giza baliabideen eragina mantentzen duen energia. Gaur egun, garrantzia handia ematen zaio elementu honi.

Baliabide finantzarioak enpresa baten ahalmen ekonomikoa irudikatzen dute era

guztietan. Adibidez, eskudirua, banku-karentean dagoen dirua, beste batzuen arteko kredituak eta bonuak. Errekurtso finantzarioen ezaugarri nagusia da enpresaren gainerako baliabideak abiarazten dutela aktibo erosketaren bitartez, giza baliabideetako ordainketaren, teknologiako eta ingurune laboralaren hobekuntza garapenerako . Baliabide finantzarioak, batez ere, bazkideen aldetik kapital sozialera egindako ekarpenetik, produktuen salmentetatik edo beste batzuen arteko zerbitzuetako kredituetako ekarpenetik datoz.